



PSE-EEK eta EAJ-PNVk osatutako gobernu-taldea dagoeneko 2019-2023 agintaldiko gobernu-programaren % 80 gauzatzen ari da

- **Covid19-ak modu nabarian baldintzatutako 2 urte igaro diren une honetan, Gobernuak agintaldiaren erdialdeko balantze oso positiboa egiten du.**
- **Lainezek eta Izagirrek lehentasun bezala ezarri dute "udalerrriaren berraktibazio sozio-ekonomikoa", eta aurreratu dute "ahalegin guztiak" egingo dituztela "egoera gairitu eta hazkunde joerari ekiteko, inor atzean utzi gabe".**
- **ANDOAIN ELKARLANEAN ekimenaren barruan hartutako 65 konpromisoetatik, dagoeneko 9 jardura amaitu dira (% 14) eta beste 43 (% 66) osatzeko fasean daude**

Bi urte igaro dira PSE-EEK eta EAJ-PNVk gobernu talde berria osatu eta 2019-2023 agintaldirako Andoaingo gobernagarritasunerako akordioa sinatu zutenetik. Hala, gobernu-taldea osatzen duten 9 kideek agintaldiaren erdialdearen balantze oso positiboa egin dute eta aitortu dute Covid19-ak ere nabarmenean baldintzatu duela jarduna.

Maidar Lainez alkatea eta Mari Jose Izagirre alkateordea buru dituen taldeak "arduraz" ekin dio "udalerrriaren suspertze sozio-ekonomikoari", eta, helburu horretarako "ahalegin guztiak egingo dituztela" aurreratu dute, "persona guztiak egoera hau gairitu ahal izateko eta hazkunde-joera positiboari ekiteko, inor atzean utzi gabe".

Covid19-a iritsi eta osasun-alerta ezarri zenetik, andoaindarren egunerokotasunean eragina izan du egoera honek. Antzeko zerbait gertatu da Andoaingo Udalaren eguneroko kudeaketarekin. Denbora azkarrean, Udalak egokitu egin behar izan zuen egoera ezezagun berri bati aurre egiteko, erabakiak ia etengabe hartuz. Neurri horiek hartzeko orduan, andoaindarren ongizatea lehenetsi da, erabaki guztien erdigunean egon baitira.

Udalaren lehentasunen artean, honako hauek nabarmendu dituzte: zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen hurbileko arreta eta zuzeneko harremana mantentzeko ekintzak; kaleak, hiri-altzaria edo erabilera komuneko eremuak garbitzeko eta desinfektatzeko lanak areagotzea; egutegi fiskala birdefinitzea, epeak luzatuz eta erraztasunak emanez; eta autonomoei, merkataritzari, ostalaritzari eta antzekoei zuzendutako laguntza-lerroak abian jartzea, establezimenduak nahitaez ixteak edo haien jardura nabarmen murrizteak eraginda kalteei aurre egin diezaieten.

Azaldu dutenez, agintaldiaren lehen erdia benetako "entzute aktiboko eta ikaskuntzako" prozesu bat izan da. Prozesu horretan, bateratu egin behar izan dira



ANDOAIN ELKARLANEAN 2019-2023 agendan ezarritako lehentasunak eta pandemiak sortutako premia eta larrialdi egoerak. Horretarako, funtsezkoa izan da "lidergo partekatua gauzatzea eta praktikan jartzea, gobernu taldearen, Udaleko talde teknikoaren eta Andoaingo gizartearen artean". Lainezek eta Izagirrek azpimarratu dutenez, "Andoaingo Udalak baliabide tekniko, ekonomiko eta pertsonal guztiak erabili ditu egoerari aurre egiteko".

2019-2023 aldirako konpromisoak

Esan bezala, agintaldiko konpromiso programatikoak garatzen ari dira, eta horietako batzuk arrakastaz osatu dira dagoeneko, zehazki, jardueren %14:

- ANDOAIN ELKARLANEAN dinamika eta 2022rako aurrekontu parte-hartzaileak abiaraztea.
- Terraza eta itxituren ordenantza eguneratzea.
- Jubilatuen Etxean egindako hobekuntzak.
- Andoaingo dendetan eskola-materiala erosteko laguntzak.
- Leitzarango parkeari lotutako "Turismo aktiboaren" eskaintza indartzea edo "via ferrata" berehalako irekiera.

Konpromiso asko oso aurreratuta daude (% 66), eta laster gauzatuko dira. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Pertsona autonomoentzako edo 1. mailako mendekotasuna dutenentzako eguneko arretarako zentroa abian jartzea Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen Zentroan.
- Rikardo de Arregi eta Agustin de Leitzan bidegurutzean biribilgune bat egitea.
- Pump-track zirkuitu bat sortzea (txirrindularitza modalitatea, non korrikalari batek dimentsio txikiko pista bat gainditu behar duen, bultzatu gabe edo pedalkadarik eman gabe).
- Oria eta Leizaran ibaien garbiketa eta leheneratzea kudeatzea (espezie inbaditzaileak kendu dira, presak eraitsi dira, eta ibaiertzeko landare autoktonoak landatzea planifikatu da).
- Kultura-ondarea babesteko eta balioesteko neurriak sustatzea (ikasturte hasierarako, Andoaingo erraldioen konpartsaren gomazko lehen figurak aurkeztuko dira).
- Auzoetan udal-zerbitzuen berdintasuna sustatzea, azpiegitura berriak instalatuz (komun publikoak, haur-parkeak).

"Azken urtea konplikatu eta gogorra izan den arren, ekintza asko jarri ditugu martxan. Eta hasierako ilusio berarekin jarraitzen dugu proiektuak garatzen eta konpromisoak betetzen jarraitzeko, oraindik aurrean ditugun bi urte hauetan. Gure helburu nagusia Andoain eta andoaindarren alde lan egitea izan da, da eta izaten jarraituko du", amaitu dute Lainezek eta Izagirrek.